

# N

# U

# !!

H A M A B O S T E K A R I A

1996ko irailak 13

Usurbil, 3. Zenbakia



**ETIOPIATIK  
BUELTAN BERRIZ ERE  
GURE ARTEAN**



## JAIOZAK



- \*Cristina Rebollo Rodriguez (96-07-11) Santuenea
- \*Maira Rivero Arrieta (96-07-15) Aritzeta
- \*Garikoitz Basurto Korta (96-07-25) Txikiardi
- \*Iker Astigarraga Iruretagoiena (96-08-17) Bizkarra kalea
- \*Leire Zubigaray Portu (96-08-18) Etxebeste
- \*Iñigo Sasiain Garcia (96-08-21) Etxealdia

- \*Irati Martikorena Puertas (96-08-20) Bizkarra kalea
- \*Garikoitz Bereziartua Ramon (96-08-24) Aginaga
- \*Ander Lopez Collantes (96-08-24) San Esteban
- \*Xuban Errazkin Perez (96-08-25) Santuenea
- \*Peru Lizaso Kortajarena (96-08-26) Kalezar

## EZKONTZAK



- Nicolas Navarro Martin (Olarriondo) eta Arantxa Alzaga Pellejero (Olarriondo) (96-07-20)
- Angel Berrocal Parra (Ordizia) eta M<sup>a</sup> Eugenia Molano Salomon (Olarriondo) (96-07-20)
- Jose Mari Puldain Tolosa (Amezketza) eta Jaione Zaldúa Zuriarrain (Zubieta) (96-07-20)
- Jose Miguel Otaegi Sarasola (Santuenea) eta Irene Zabaleta Urkia (Eguzkitza) (96-07-26)
- Karlos Telleria Katarain (Lasarte) eta M<sup>a</sup> Carmen Santiago Garzon (Puntapax) (96-07-27)
- Joseba Aingeru Zubizarreta Artetxe (Donostia) eta Susana Ontiveros Roman (Bizkarra kalea) (96-08-16)
- Juan Pedro Furundarena (Kale nagusia) eta Inmaculada Goikoetxea (Getaria) (96-09-07)

## HILDAKOAK



- † 96-07-12 Kandelaria Illarramendi Zubeldia. 80 urte. Oria-gain etxea. Aginaga
- † 96-08-27. Jose Antonio Labaka Alzaga. 89 urte. San Esteban.
- † 96-09-06 Jose Antonio Argote Altuna. 62 urte Egiluze haundi. Kalezar



- UDALA 34 19 51
- UDALTZAINGOA 36 11 12
- ANBULATEGIA 36 20 13
- UDARREGI IKASTOLA 36 12 16
- AGERIALDE IKASTETXEA 36 38 85
- OIARDO KIROLDEGIA 37 24 98
- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA 37 15 94
- ETUMETA AEK EUSKALTEGIA 37 20 01

- TAXI GELTOKIA 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- GURUTZE GORRIA 27 22 22
- GURE- PAKEA EGOITZA 37 32 28
- GURE-ELKARTEA EGOITZA 37 17 51
- ARRATE EGOITZA 36 63 40
- EUSKO TREN INFORMAZIOA - - 47 09 76
- NOAUA! ALDIZKARIA 36 03 21



USURBILGO UDALA

Aldizkari honek  
Usurbilgo Udalaren  
laguntza jaso du

Dagoeneko 203 usurbildar  
bazkide ditu Noaua!-k  
Zu ere egin zaitez bazkide!



HERRIKO  
DENDA  
ETA  
ZERBITZUAK  
ERABILI



## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua! Kultur Elkartea.  
Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. (943) 36 03 21.

**Zuzendaria:** Olatz Altuna. **Kazetariak:**  
Ainhua Azpiroz, Idola Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.

**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari Matxain, Nere  
Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain Amagoia Mujika

**Administrazioa:** Arantxa Usaralde, Aitor  
Pikabea. **Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier  
Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idola Torregarai,  
Josu Aranberri, Ainhua Azpiroz, Mertxe  
Olaizola.

**Maketazioa:** Susana Martin. **Argazkia:**  
Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.  
**Informatika:** Pili Lizaso. **Banaketa:** Unai  
Lataillade, Iker Muguruza. **Tirada:** 2.000 ale.  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza, Industrialdea 1 - 2,  
20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere  
gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-  
men eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

2. **Gazi-Gozo-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
4. **Zer irizten?** (Juanjo Gomez)
- Ika-mika** (gutunak)
5. **Berriketan** (Arantxa Aranzadi)
- Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
8. **Herorrek esan** (inkesta)
- 9 **Santueneko jaiak**
- 10-11. **Erreportaia** (Eroski: etorkizunari aurre egiten)
- 12-13. **Porrusalda** (berri laburrak)
14. **Izerdi patsetan**(kirolak)
15. **Herriko taldeak** (AEK-Alfabetatzea)
- 16-17. **Agenda**
18. **Lehiaketa-Komikia** (Karlos Zabala)
19. **Harpidetza orria.**

Irailarekin batera 1996-  
97 ikasturtea iritsi da.  
Gazteenak jadanik hasi  
dira ikasten, bazen  
garaia. Beraz, behin  
baino gehiagotan  
entzungo da honako  
leloa: gure gelakoak  
gelara, egi egia da.



argazkia: Udaregi

*Maginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

Kale Nagusia, 21 C4  
Tlf 37 08 78

BERNANDO PERRI MOSSO INENINCHER  
ANTONIO IBERNAL IRUZ DE ONA

20170  
USURBIL

# 3er irizten?



## Juanjo Gomez Udarregi ikastolako zuzendaria

**J**akina da ikastolak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.) lortu duela eta hil honen 12an 1996-97 ikasturte berriari hasiera eman bazaio ere aurtengo ikastaroa zerbait desberdina izango da, hezkuntza garai berri bati ekin behar diolako.

Europako Elkarteko lurralde gehienek 9 eta 10 urtetako derrigorrezko hezkuntza aldia izanik Espainiako Gobernuak Hezkuntza sistema osoa berrantolatzeari ekin dio. Baina ez da hau arrazoi bakarra, gizartearen aldaketa gero eta azkarra-goak, lanbide gehiagoren sorrerak, lanbide heziketa nola batxilergoko lehenengo mailetakako frakasoak... horretara bultzatu baitute Gobernuak.

Honela bada Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 12-16 urte bitarteko hezkuntza garaia izango litzateke, bi ziklotan antolatua. Lehenengo zikloa, 1.

eta 2. mailatan eta bigarren zikloa 3. eta 4. mailatan banatua. Guzti honekin derrigorrezko hezkuntza bi urtez luzatzen denez etapa honen bukaera lan munduarekin bateratuko da, ikasleek ikasten jarraitzen ez badute behintzat.

Dena den etapa honen gakoa ondorengo planteamendu honetan datza: ikasle guztiei prestakuntza aukera berdina eskainiz, ikasle bakoitzaren berezitasunei (bere kapazitateei, interesei eta ikasketa erritmo desberdinei) erantzun nahi izatea. Nola gauzatu desberdintasun hau? Besteak beste, optatibitatearen bidez. Ikasle bakoitzak denbora ordu batzuk izango ditu (lehen zikloan denbora gutxiago eta bigarreanean gehiago) arlo batzuen artean berak nahi dituen aukeratzeko.

Ikastetxeetako profesionalei dagokionez prestatzeko nahiz berritzeko borondatea eta nahia suposatuko du, erabaki dextente hartu beharko dituztenez ordu asko sartu beharko dituzte langintza horretan.



### Akatsak zuzendu nahian

**A**idez aurretik barkamena Jose Mari Arzallusi. Izan ere, uztailearen 19ko Noa!n Santixabeletako Bertso paper lehiaketan irabazle suertatu zen bertso sorta argitaratu genuen 19. orrialdean eta bertan zenbait akats nabari ageri dira.

Lehenik eta behin argi gera bedi **Arzallus** dela irabazlearen abizena eta ez Arzalluz, guk jarri genuen moduan.

Bestalde jatorrizko bertsoetan agertzen ez diren **bi poto** ere erantsi genizkion irabazle atera

zen bertso sortari. Honela bada, laugarren bertsoan **"pareta"** hitza errepikatzen da azken bi oinetan. Beraz zuzenketa eginda **"masa ta paleta"** izango litzateke "masa ta pareta" izan beharrean. Bederatzigarren bertsoan berriz, "beren eragina"ren ordez **"beren erre-gina"** izan beharko luke.

Guzti hauekin batera beste bi akats txiki: zazpigarren bertsoan **"erabat apaina"** banatuta baita eta hamargarren bertsoan **"Hirugarrena berriz"** baitago zuzen eta ez "hirugarren berriz".

Besterik gabe zuzendurik gel-

ditzen dira Joxe Mari Arzallusen bertso sortan eginiko akatsak. Eginez ikasten omen delakoa-ren leloan babestu beharko dugu oraingoan, dabilenari gertatzen omen zaizkio honelakoak eta.

**Noa! aldizkaria**

Edonork edozertaz idatz dezake; gutunak gehienez 12 lerrokoak. Helbidea: Kale Nagusia, 27. Tel. 36 03 21. Gutunak ezizenez sina daitzek, baina izen-deiturak eta ENAren zenbakia beharrezkoak dira.

Ikastolarako materiala

K/ Etxebeste, 1  
Tel.: 36 11 15

USURBIL  
(Gipuzkoa)



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**  
pintxoak eta  
bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

**Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

## ARANTXA ARANZADI

### Aginagako katekista

#### Gaztetan asko disfrutatutakoa omen zara.

Bai, asko, baina parrandarik batere egin gabe. Nik lehenengo parranda Aginagak Kontxa irabazi zuenean egin nuen.

#### Nola disfrutatzen zenuten?

Bostak aldean hasten zen trikitixa eta dantza eginez. Mutilak "faborez" esanez etortzen zitzaizkigun. Patrikan kakahueteak edo karameloak bazituzten dantza egiten genuen, eta bestela,

ez.

#### Nongo festetara joaten zineten?

Aginaga, San Esteban, Usurbil eta Zubietara normalean.

#### Eta bueltatzeko ordurik ba al zen?

Gure etxean bai. Guk seietarako etxera etorri behar izaten genuen amaren aginduz. Baina hala ere gaurkoak adina disfrutatzen genuen

#### Eta orain?

Bai, bai, nik beti. Orain ere eskursioak egiten ditugu eta mugitzen gara.

#### Eta katekista bezala ere disfrutatzen al da?

Noski. Gainera pertsona bezala niri irekitzen eta lagunak egiten lagundu dit. Askok ikasi dut.



#### Zenbat denbora daramazu katekista lanetan?

Hogeita bi urte, larunbatero larunbatero joanez.

#### Haurrak gustora joaten al dira?

Askok gurasoek bidaltzen dituztelako joaten dira, baina badaude gustora joaten direnak ere.

#### Jaunartzea egiten dutenean, ba al dakite zer den, ala opariengatik egiten dute?

Oparietaz hitzegiten egoten dira, baina elizako ospakizunekin ere ilusionatuta ibiltzen dira.

#### Katekista bezala jubilatzeke asmorik ba al duzu?

Ez, ez, oraindik behintzat ez.

#### Ilusiorik egin al dizu jaso berri duzun lehen pentsoiak?

Bai ilusia beti egiten du, nahiz eta asko ez izan.

#### Eta merezitakoa al duzu?

Nik uste dut baietz. Hamar urtetan ibili nintzen Michelinera bizikletaz joanez. Gainera, bidean binaka joaten baginen, Guardia Zibilek multa jartzen ziguten.

#### Jubilatua egotea eta zahartzaroa, aldi berean al datoza?

Ez dut uste. Niri behintzat ez zait iruditzen jubilatua naizenik eta dauzkadan urtean dauzkadanik.

## GAS HODIAK ORIA IBAIAN

Abuztuan zehar eginiko eurien ondorioz Oria ibaia handitzeke lanetan hasi zirelakoan geunden, baina oker genbiltzan. Gas hodiak (tuboiak) Andatzaren magalean pasa ondoren Oria ibaia zeharkatu behar eta...



argazkia: J. L. Ibañeta

xirrikitutik

# PATRI

## JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia, 6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

# MAHUKA



## GAZTE DENDA

### Orain, neguko puntako moda

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

## ERREKONDO EGUR ZERRA

eraikuntzak eta  
altzariak  
bertako  
egurrean



Tel./Faxa 362237 Zubieta

## TXOKOALDE

Iñaki  
Labaka

**A**buztuaren lehenehgo hamabostaldian eguraldi itxurosoa izan genuenez ez zen giro izan errepideetan. Kotxeak etengabe, bata bestearen atzetik, batez ere jendea hondartzatik etxerantz itzultzerakoan. Honela bada, Txokoaldetik atera nahi zuen edonork egonaldi ederrak egin ditu Galarditik ateratzera-koan; Usurbila joan behar, eta kotxeen ilada amai ezina noiz bukatuko egon behar. Honelako egoeran nazka-nazka eginda San Estebandik joan denik ere bada. Egoera hau salatu didanik ere bada, konpontzeko zerbaitegin beharko litzatekeela eskatuz. Hala ere, bigarren hamabostaldian eguraldi petralak ixildu zituen kexa horiek, errepidean kotxe gutxiago ibili baitzen.

Baratza kontuei dagokionez, iraileko eguraldi onak mesedegarri izango dira babarrubak heltzeko. Hala ere aspaldi honetan etengabe heldu direnak **piperrak** dira. **Gazte ugari** ikusi ahal izan ditugu inguruetan **piperrak biltzen**. Auzokoak ezezik, bizikletan etortzen zenik ere bazen tartean. Piper biltzaileen **soldata: hogeituro kiloko**.

Bestalde **Aginagako apaizak** Abuztu osoa egin du **oporetan**. Hori dela eta ez da elizkizunik izan larunbatetan. Igandetan bere anaia bidaltzen zuen bera ordezkatzeko, baina igande bezperan ez zen eukaristiarik izaten. Hemendik aurrera, irailarekin batera, larunbatetan nahiz igandetan meza entzuteko aukera izango da.

## KALEBERRI

Ines  
Kamino

**Berrikuntza lanak** ditugu nagusi **Kaleberrin**. Udararekin batera eta oporetaz baliatuz, berrikuntza lanak ikus ditzakegu egunotan.

Alde batetik **Oa farmazia** erabat ezezaguna agertzen zaigu. Abuztuaren erdian itxi zutenetik berrikuntza lanetan ari dira burubelarri, irailaren haserako "look" berria eman nahian. Horretarako aldaketa sakona izango du, barne nahiz kanpoan ari baitira lanean.



**Bordatxo aurreko estalkia** ere **aldatzera** doaz. Bordatxon dagoen etxea margotzen ari direla baliatuz hainbat eta hainbat urtetan aterpe izan dugun karpa berdea kendu egin dute. Orain burnizko eskeletoa soilik badago ere, laister batean ezarriko dute karpa berria. Oraingoan itoginik ez da izango behintzat.

Berrikuntza lanak alde batera utzi eta jabe nahiz izen aldaketari buruz hitzegitera noakizue. Izan ere, uztailaz geroztik lehen Kabi taberna zenak orain "Bentatik nator bentara noa" izena hartu du. Jabe berriek ezin izen luzeagoa jarri.

## ZUBIETA

Nere  
Amenabar

**I**gande honetan, hilaren 15ean, **Zubietan Euskal festa** ospatuko da. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, festa ederraz gozatzeko parada izango dugu. Tradizionalki ospatu izan den festa honetan, batez ere herriko jendeak parte hartzen du. Urte batzuetako etenaldiaren ondoren azken lau urteotan berriro ospatu da jaia, iazko salbuespena ahazten badugu behintzat.

**Goizean goiz** hasiko da jaia **txistularien dianarekin**. Ondoren, ohiturari jarraituz, hamaietako paregabea dastatu ahal izango da. Sabela ondo bete ondoren **herriko ganadu txapelketa eta langintza-erakusketa** ikusteko prest izango da. Eta guzti honekin bapo gozatu ondoren nahiko jan eta edana herriko plazan egingo den bazkarian.

Bazkalostean **herri-kirolak: aizkolariak, trontza eta dema**. Eguna ondo amaitu nahiz bazkaria jeitsi eta afariari leku egiteko arin-arin nahiz fandango pranko dantzatzeko aukera trikitilariekin.

Honako egitarau betea ikusi ondoren bueltatxo bat emateko gogoak piztuko zitzaizuelakoan gaude. Honela bada, gure gonbidapena luzatzen dizuegu igande honetan Zubieta aldera ager zaitezten..





# lejiran

## AGINAGA



**Iratxe  
Begiristain**

**A**buztuaren 17an bete ziren bost urte **Xabier Aranburu "Xomorro"** aginagarra atxilotu zutenetik. Baina aginagarrek ez dute "Xomorro" ahazten, eta horregatik "San Praisku" festen atarian **omenaldia** antolatu diote Usurbilgo Amnistiaren aldeko batzordeak eta Aginagako jai batzordeak.

**Irailaren 28an** goizeko hamarretan emango zaio hasiera bi eguneko omenaldi honi. Izan ere goizeko hamarretan **bizikleta martxa irtengo** da Aginagako plazatik herrian zehar "euskal presoak Euskal Herrira" aldarrikatzeko. Arratsaldean berriz, **mus txapelketa** arratsaldeko lauretatik aurrera. Eta lehen egun honi amaiera emateko **Triki Ta Ke eta Gozategi** anai-arrebek



erromeri bikaina eskainiko dute ilunabarreko hamaiketatik aurrera.

**Igandean** ere beste hainbat ekitaldi izango ditugu Usurbilen. Goizean goizetik **mural pintaketa**, eguerdian **zikiro jana** eta arratsaldean **txalaparta, diapositiba emenaldia, bertsolariak trikitilariak** izango ditugu, omenaldi beroarekin batera. Ondoren **elkartasuneko kalejira** eta trikitilarien omenaldiari amaiera emateko.

## KALEZAR



**Pedro Mari  
Matxain**

### Turistak kalezarren

**U**da honetan turista asko izan ditugu Kalezarren. Dirudienez aurrez antolaturiko bidaiak ziren, eta Maikar jate-txean bazkaltzen zuten. Baina gehienetan tripak betetzeko ordu pare bat itxaron behar izaten zuten, bueltatxo bat ematera joaten ziren.

Hala ere Usurbil herria behetik ezin ikusi eta Kalezar aurrean izanda, han abiatzen ziren, ez gogo onez, horrenbeste eskailera ikusita, eskaileretan gora... Eta gainera **egoera txarrean dauden eskaileretan gora** alajaina! **Ea Udaletxea oraingo honetan funikular bat jartzera animatzen den.** Hara hor gure herriko turismoa promozionatzeko aukera.

Bestalde, **San Roke jaiak** pasa dira eta aurten **suziririk ere ez**. San Roke saldu egin beharko dugu. Lehengo gaitzak eta oraingoak desberdinak izango dira

## ATXEGALDE




**Amagoia  
Mujika**

**D**uela pare bat hilabete hortzdun makina haundiak izan ziren atxegal-detarron iratzargailu. Izan ere **gas naturalaren hornikuntza** bideratzeko Atxegaldeko kaleak erdi-erditik ireki baitzituzten. Naturgas enpresaren eskutik egin ziren instalakuntza hauek eta proiektua Usurbil osora bideratua egon arren beste pixkatean izango ditugu makinatzarrak gure artean. Orain arte **Ariztitxo, Beko-kale eta Erdiko-kalean** aritu badira ere, Atxegaldeko kale batzuetara iristeke daude oraindik.

Bestalde denon belarrietara iritsi da hilerri berri baten proiektuaren kontua, eta ziu-rrenik bat baino gehiago harrituko zen duela hilabete batzuk **hilerrian zenbait lantxo** egiten ari zirela ikustean. Badirudi heriotza kopurua gorantz doala eta hilerrian lekua falta dela; horren ondorioz arazo hau konpontzeko **120 gorpu-une (nitxo)** egin dira, hilerri berria egiteko denbora lortze-arren.

Hilerri berriaren proiektua aurrera eramateko jarrera badago Udalaren aldetik. Ea bada lehenbailehen eramaten dituzten hildakoak leku lasaigo batetara, Udarregi ikastola-ko plazatik ustekabeen erortzen zaizkien baloietatik urrun.



# H erorrek esan



**Ane Irazusta**

Kalezar

8 urte

**B**ai. Hemen piska bat aspertu egi-

ten naiz. Ikastolan lagun gehiago ditut eta beraiekin hobeto pasatzen dut jolasten.



**Luci Ledi Sanchez Vargas**

Santuenea

6 urte

**B**ai. Gogo asko daukat eskolara

hasteko. Margotzea eta nere lagunekin jolastea gustatzen zait gehien eskolatik.



**Maria Torcida**

Etxe Aldia

10 urte

**E**z. Eskolan hasteak ikasten hasi

behar dela esan nahi du. Udar berriz nahi duzun arte gera zaitezke esna eta egun guztia jolasten pasa dezakezu. Ez daukat ikasten hasteko gogorik.



**Alvaro Carrasco**

Santuenea

9 urte

**B**ai. Eskolatik gehien gustatzen zai-

dana jolas garaia, lagunak eta gimnasiako klaseak dira. Gainera, oso ondo pasatzen dut bertan.

**Gogorik ba al duzu eskolara itzultzeko?**



**Jon Irazusta**

Kalezar

11 urte

**E**z. Asko aspertzen naizelako

eta gainera udaran askoz ere hobeto pasatzen dudalako. Ikastolan ez dugu asko jolasten, horregatik aspertzen naiz.



**Cristina Peña**

Etxe Aldia

11 urte

**E**z. Udara baino hobetik ez dago.

Ikastea ez zait gustatzen, eta eskolan besterik ez da egiten. Udar berriz nahi duzuna egi-ten duzu: hondar-tzara joan, kalean lagunekin jolastu...



**Beñat Lorenzo**

Eguzkitza

11

**E**z. Gaizki pasatzen da bertan

eta gainera lan asko egin behar da. Nahiago dut udara, nahi dudana egin dezakegu-lako eta lagunekin jolasten naizelako. Ez zait eskola gusta-tzen.

**TABERNA  
JATETXEA**



**ANTAXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL

**USURBIL**  
O P T I K A




Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil  
Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL




ARRAINDEGIA  
KALE HICYSIA, 25  
TEL. 36 12 06  
USURBIL



## SANTUENEAKO JAIK: SANTURIK GABEKO JAI BAKARRAK

Nahiz eta auzo ihistorikoa ez izan, Santueneatarrek ere beraien jaiak izaten dituzte. Azken urte hauetan, Zarauzko euskal jaien inguruko asteburukaera hartu eta festa usaez betetzen da auzo hau. Badira dagoeneko urte batzuk bertako gazteak ekimen hau aurrera eramaten hasi zirela. Egia esan, garai batean nahikoa iskanbila izan zen Santuenea eta Sanestebanen artean, baina azkenean liskar haiek konpondu ziren Gaur egun, santueneatarrek



beraien jai propioak dituzte. Behean ikus dezakezuen bezala, 13, 14 eta 15ean izango da zeregin zer ikusi eta zer dantzaturik. Egia esan, 96ari dagozkion jaietan etxeko txikienek, gazteek helduek eta zaharrek izango dute non denbora pasa. Aitzakia bat behar izanez gero hara hemen santurik gabeko auzo bateko jaiak luzatzen dizuten eskaintza. Santurik ezean, zuk izan beharko duzu zeure buruaren zaindaria. Kontuz beraz!

### IRAILAK 13 OSTIRALA HAURREN EGUNA

|           |                                        |
|-----------|----------------------------------------|
| 15.00etan | Pintura lehiaketa                      |
| 16.00etan | Haur jolasak eta jarraian buru handiak |
| 18.00etan | Txokolatada ezin hobea                 |
| 19.30etan | Goitibera lasterketa                   |
| 20.00etan | Globo guda, zertxobait freskatze ko    |
| 22.30etan | Dantzaldia IZOTZ taldearen eskutik     |


### IRAILAK 14 LARUNBATA KOADRILEN EGUNA

|           |                                        |
|-----------|----------------------------------------|
| 9.00etan  | Diana.                                 |
| 10.30etan | Txirrinda zirkuitua                    |
| 12.00etan | Tortila txapelketa eta hauen dastaketa |

|           |                                                                                                                                 |
|-----------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 14.00etan | Kuadrilen bazkaria                                                                                                              |
| 16.00etan | Mus txapelketa                                                                                                                  |
| 20.00etan | Zezenak                                                                                                                         |
| 21.30etan | Koadrilen afaria                                                                                                                |
| 23.30etan | Dantzaldia LAIOTZ taldearekin Atsedenaldiran karaokea, dantza txapelketa, irrintzi lehiaketa etab egongo dira. Ondoren gaupasa. |

### IRAILAK 15

|           |                                   |
|-----------|-----------------------------------|
| 9.00etan  | Diana                             |
| 12.00etan | Poteo herrikoia                   |
| 14.00etan | Bazkari herrikoia                 |
| 16.30etan | Toka eta botea                    |
| 19.00etan | LEIZARAN taldearekin dantzaldia   |
| 24.00etan | Festen amaiera "Pobre de mi"rekin |



## EROSKI: ETORKIZUNARI AURRE EGITEN

**U**ztailaren 18an bukatu zuten Usurbilgo Udalak eta Eroski S. Coop.


Elkarteak elkarren artean egin duten hitzarmena.

Horrela, Urbarteko lurretan Eroskiren hipermerkatua eraikitzeke proiektuak aurrera jarraitzen du.

Prozesua ez da erraza izan orain arte, eta aurrerantzean ere bere lanak emango ditu. Hasieran, Eroski S. Coop. Elkarteak Asteasuaingo lurretan hipermerkatu bat eraikitzeke asmoa agertu zuen. Lur hauek Urbarten daude, Usurbilgo Udalerrian, baina Lasarte-Oriaren jabetza dira. Beraz, biekin negoziatu beharra zeukan.

Usurbilgo Udala proposamena aztertzen hasi zen. Horrelako merkatal gune batek herri mailan eragin handia izango zuela pentsatu zuen, eta herriaren iritzia kontutan hartu beharrekoa zela. Horrela, 1995eko urtarrilean zehar herri kontsultak burutu zituen. Lehenengo, auzoz auzoko bilerak egin ziren Eroskiren proiektuaren berri emanaz. Ondoren, urtarriaren 21ean erreferenduma egin zen. Herriarren %30k parte hartu zuen, eta %90a Eroskiren proiektuaren alde agertu zen. Lehen pausua emana zegoen. Baina negoziatzen hasi aurretik, Lasarte-Oriaren erantzunari itxaron behar zitzaion.

Udalerri honetan tira-bira haundiak egon ziren komertzianta eta Udalaren artean. Hala ere baiezkoa eman zuen azkenean, eta kooperatibarekin negoziatzen hasi zen. Ondoren, Usurbilgo Udalak gauza bere egin du,



azken hitzarmen hau izan delarik emaitza.

### Hipermerkatua nolakoa?

Urbarteko lursailak 160.000 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Hipermerkatuak 30.000 m<sup>2</sup> izango ditu, 37.500 m<sup>2</sup> aparkalekuak, eta 13.750 m<sup>2</sup>ko lur azpiko aparkaleku pribatua ere izango da. Gainerantzeko lursaila kirol ekipamendutara bideratuko da eta Lasarte-Oriako Udalaren jabetza izaten jarraituko du.

Hipermerkatuaz gain, 30 denda ere sortuko dira. Hauek ustiratzeko lehentasuna Usurbil eta Lasarte-Oriako komertzianteei izango dute.

### Hitzarmenaren muinak

Gai asko eta desberdinak negoziatu dira hitzarmen honetan: kanonak, zergak,

konpentsazioak, Udalerriko biztanlegoarentzat erraztasunak, euskarari buruzkoak, merkatarien aldekoak e.a.

Esaterako, Eroski S. Coop. Elkarteak, ohiko zergaz gain, hamar urtez, Udalerri urteko hiru miloi pezeta ordaintzeko konpromezua hartu du. Kopuru hau herriko obra eta jarduera sozio-kulturaletara bideratzeko izango da. Horrez gain, 86.810.240 pezeta ordainduko dizkio Udalerri hiru epetan. Diru hau ere interes publikoko obrak egiteko erabiliko da.

Bestalde, hipermerkatuak gutxienez 180 lanpostu berri sortuko ditu. Hauetako %70 Usurbil eta Lasarte-Orian bizi diren herriarrekina bete beharko ditu. Bi herrien arteko banaketa langabezia kopuruaren arabera egingo da

(Usurbilen %35 eta Lasarte-Orian %65). Horrela, Usurbilgo langileak, gutxienez, 46 izango dira. Horrez gain, inguruko 30 dendetan ere 70-100 lanpostu sortuko dira.

Langileen aukeraketa egiterakoan Eroski S. Coop. Elkarreak jarritako profila hartuko da oinarritzat. Ondoren, lan kontratazioak egiterakoan lehenetasun hauek izango dira kontutan:

- langabezia dauden pertsonak

- lanean esperientzia gutxi edo batere ez duten emakume gazteak

- bete beharreko lanpostuetan esperientzia duten merkataritzako langileak

Kontratua egiterakoan ez da eskatuko soldaduska egina izaterik. Intsumiso bada edota kondena penalik izango balu ere, ez dira eragozpenak izango lanpostua eskuratzerako orduan.

Langileen euskara maila ere baloratuko da. Horretarako, Eroski S. Coop. Elkarreak ikasketen %100 ordainduko die behar dutenei. Honekin loturik, kooperatibak Usurbilgo Udalarekiko harreman guztiak euskaraz burutuko ditu.



## PATXI BORDA LAUROK-eko dendaria

**E**roskiri ez diogu inolako abantailarik ikusten eta ez gaude batere pozik. Udalak ere ez digu batere lagundu. Gure negozioak moldatu egin beharko genituela esan zigun. Baina nola? Guk daukaguna Eroskik jarriko du, eta prezio aldetik konpetitza oso zaila daukagu. Eta Usurbilen espezializazioak ez dauka lekurik.

Udalak beti aurrerantz jo du proiektu honekin, eta benetan kaltetuak garenoi ez digu inolako laguntzarik eman. Erreferenduma ere "esku-garbitze" bat izan da, etorkizunean "herriaren borondatea" egin genuen esateko. Diru sarrerei eta sortuko diren 46

lanpostuei soilik begiratu die, baina herrian lanpostu asko desagertu egingo dira. Komertziantek ere ez gara asko mugitu, gure artean ez dagoelako harremanik.

Eroskik dena oso ondo aztertuta dauka, baina bere intereserako; hipermerkatua, aldameneko dendak eta baita herrietan egiten ari dena. Aldameneko denda horietan ez dugu sinisten. Zer jarri behar duzu kanpoan barruan ez dagoena? SF orain Erosle bihurtu da, eta herri mailan azken erosketetarako hori dauka.

Herriarentzat ona izango dela...?

## Eta orain, zer?

Lehenengo egin beharreko gauza lursailaren kalifikazio aldaketa da. Urbarteko lurak industrial bezala izendatuta daude. Horregatik, Merkatal lur bezala kalifikatu behar dira hipermerkatua eraiki ahal izateko. Eginkizun hau Usurbilgo Udalaren esku gertatu da.

Beraz, orain, Udalak Diputazioari lurren kalifikazio aldaketarako eskaria egingo dio. Sei hilabete pasatzen ditu normalean tramite honek. Beraz, horren ondoren hasiko gara Urbarteko lurak mugitzen ikusten.

Horrekin batera, Diputazioak ingurune horretan N-1 errepidea eta autopista (Aritzetako geldigunetik) lotzeko asmoa du, eta bere proiektuan Eroskiren eraikuntza, eta orohar, Urbarteko aldaketak kontutan hartzeko eskatu dio Udalak.

Bestalde, Udalari 15 m2ko toki alocatuko dio. Hori eskuratzeko, Udalak lokal hori erabiltzeko proiektu bat aurkeztu beharko dio Eroski Elkarteari. Horrela ez bada, kooperatibak berak erabili ahal izango du, edo beste hirugarren batzuei alokatzeko aukera izango du.





## AUTOBUS ZERBITZUEN MURRIZKETAK HERRITARRAK HASARRETU DITU

**D**uela bi urteko arazoa gure artean dugu berriz ere. Eusko Trenak Donostia-Zumaia ibilbidearen ardura hartu zuenean bezala, zerbitzuen murrizketa indarrean jarri du irailean. 1994an amore eman eta orduerdiroko zerbitzuak ezarri bazituzten ere, aurtengo honetan gauzak ilunago daudela ezin daiteke uka.

Uztailean hasi zen guztia. usurbildarrok udarako ordutegia erabiltzen genuen bitartean Eusko Trenak Diputazioaren bitartez, ordutegiaren berregituraketa igorri zion udaletxeari. Bertan, aurreko ordutegiarekin alderatuz 14 zerbitzu gutxiago eskaintzen zituen autobus enpresak. Udaletxeak herritarren eragiten zuen kalteaz jabeturik, zazpi zerbitzu berres-

kuratzeko eskakizuna egin zion. Hala ere alferrik. eskakizunei harrera ona eman bazien ere azkenean eskatutako bi zerbi-



tzu besterik ez dituzte jarri.

Autobus murrizketak zergatik? Joan den irailaren 2an egin zen bileran argi gelditu zen zergatia. Eusko Trenak tren zerbitzua bultzatu nahi du, piskana-

ka autobus zerbitzua murrizten joateko. Honela ez dituzte kontutan hartzen Aginaga, Txokoalde, Txikierdi nahiz Kalezarkoek trena hartzeko dituzten zailtasunak; ez eta Ibaeta, Antiguu, Lorea edo Unibertsitatera joateko ordutegi berriak sortarazten dituen arazoak ere.

Gauzak honela lehen zegoen orduerdiroko ordutegia eskuratzeari beharrezkoa zela argi gelditu zen autobus erabiltzaileen bileran. Horregatik firma bilketak, kartelak eta irailaren 11an alkateak Diputazioan izan zuen bilera ospatzen zen bitartean kanpoan eginiko konzentrazioa izan dira herriak murrizketa honi eman dion erantzunaren adibide. Konponduko al da arazo hau? Erantzuna hurrengo aleetan.

## PATXI AÑORGA USURBILDAR PRESOK KARTZELA-ZIGORRAREN 3/4a BETE DU



**L**egediaren arabera, preso batek bere zigorraren hiru laurdena beterik badu ere, baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea du. Kode Pe-nal berriaren 98, 98 bis eta 99. artikuluek, "Reglamento Penitenciario"ko 58 eta 66. ek eta "Ley General Penitenciaria"

delakoaren 17.3 eta 76. 2. b artikuluek horrela agintzen dute behintzat. Baldintzapeko askatasun hau lortzeko orde, badaude subjetoak eta partzialak diren beste baldintza batzuk ere: presoen portatera, 3. graduaren beharra edo eta bizitza "normala" eta "zintzoa" eramango dutenaren segurantzia. Baldintza hauek Kartzela Instituzioen eskuetan geratzen direnez, baldintza hauetaz baliatzen dira presoek presio egiteko.

Patxi Añorga usurbildarra egoera honetan aurkitzen da; baina zoritxarrez, eta kasu hauetan askotan gertatzen den bezala, legea betetzeko ahalegin askorik ez da egiten. Euskal Herri osoan 120 preso dira araudi honen arabera aske egon beharko luketena.

Antzeko egoera ematen da sendaezinezko gaixotasunak dituzten edo 15 urte baino gehiago kartzelan daramatzaten presoekin ere.

# SALTXIPI



Txokoalde, z/g  
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

Barruko arropak eta  
etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1  
telefonoa: 36 17 87

Haur  
jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

**J**oan den uztailaren 19an Aginagan dagoen **Arrilaga Txiki** baserria erabat **kiskalita** gelditu zen sute baten ondorioz. Argazkian ikusten den bezala baserriaren paretak bakarrik gelditu ziren zutik.

**O**ria ibaia gero eta garbiago dagoela esaten dute baina urtero bezala euri egunetaz baliatuz lantegiek beren isurkinak botatzen dituzte. Horrela, abuztuaren **Oriako uretan milaka arrain hilda** agertu ziren kutsaduraren ondorioz.

**U**dal Kiroldegian **zenbait berrikuntza** egin dituzte. Abuztuko oporretan belar artifizialeko zelaia hesi metalikoaz inguratu dute. Barruko sarreran aldiz, bi ate jarri dituzte, bata pisiznara joateko eta bestea beheko aldageletara joateko. Azkenik, muskulatura gelan zorua berritu eta bizikleta estatiko berria ere jarri dute.

**D**onostiako Nazioarteko Jazz jaialdian, atzerritarrak ezezik usurbildarrak ere izan genituen. **Iker Muguruza, Pello De la Cruz, Jexux Artze eta Mikel Artolak** eskaini zuten txalaparta emanaldia.



**D**onostiarekin jarraituz, herriko dantzariak ere beren abilezia erakutsi zuten. Izan ere Goizaldi dantza taldearen emanaldian **Nere Eizagirre, Aitor Egileta, Aingeru Esnaola, Arantxa Txapartegi eta Aitor Irazustak** egin baitzuten dantza.

**A**buztuaren 3an Olarriondon zenbait ezezagunek **kotxe bat erre** zuten goizeko 3.30etan. Aurpegiak estalirik zituzten ezezagunek koktel molotov-en bidez eman zioten su Ford Escort bati.

**U**surbilgo gazte asanbladak antolatuta **Rock kontzertua** izan genuen abuztuaren 30an Udarregi zaharrean. Jende ugari inguratu zen bertara Joxe Ripiau eta Bizkar Herzurra entzutera.

**F**rontenis txapelketak aurrera darrai. Usurbilgo gazte asanbladak antolatutako txapelketa abuztuaren lehen egunetan hasi zen, eta oraindik lehen faseko partidua jokatzeko ari dira Neurketak frontoian arratsaldetan.

**H**irugarren aldiz jarraian **Aitzaga Elkarteak** eskuz bina-ka pelota txapelketa antolatu du. Oraingo honetan federatu ez direnak beren abilezia agertu ahal izango dute usurbilgo frontoian, beti ere **lau t'erdian eta pelota biguinaz**. Apuntatzeko epea irailaren 18an amaituko da. Aurreko bi txapelketetan **Joxean Labaien eta Iñaki Rekondo** izan ziren irabazleak.

xabier  
e-antegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



**URTINEA  
LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

**SUNBELTZ  
TABERNA**

Eguneroko men  
Bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 37 25

## KIROL KOPLA



**AIORA  
ARROSPIDE**

**H**ondartzara joan, igerian ibili, pedalei eragin, mendira igo, korrika saio batzuk egin... Udan nahiko denbora izaten da kirola gustora egiteko, bai horixe! Eta herritar asko dira horrela ibiliak.

**Jon Carbayedak** bere bizikletari eutsi eta Kantabria aldean denboraldiko lehen garaipena lortu zuen abuztuaren 22an.

**2. errejionaleko** Usurbildar **futbol taldeak** Kantabrietik ez baina Urnietatik ekarri zuen **garaipena** joan den astean, **2-3** irabazi ostean.

Baloiarekin jarraituz, herrian xurumurru ttiki bat ere entzun da; saskibaloian senior mailako taldea sortzearena. Espero dezagun zurrumurruan bakarrik ez geratzea. Anima zaitetzela.

**Imanol Matxain** eta **Arkaitz Portularume** pelotariak ere Andatzpe-Peña Pagola taldearekin Gipuzkoako klubaren arteko ligari gogor ekingo diote laster batean.

Baloi eta pelotak alde batera utziaz joan den denboraldiko usurbildar judo taldearen balantzea bikaina azpimarratu behar, bai judoan baita samboan ere. Lorturiko emaitza onei esker Usurbilgo judo taldea Gipuzkoa mailan lehena da eta Euskadi mailan bigarrena.

Beno, badakit zenbait kirol talde eta zuetako hainbat kirolari ez ditudala aipatu, baina tira, hurrengo baterako utziko dugu. Konforme?



## AUPA NESKAK! EMAN GOGOR BALOIARI

**H**ainbat urte badaramazkizue futboleant. Haseran eskolarte mailako areto futbol txapelketetan aritzen ziren, iaz kontxako hondartzan beraien abileziak erakusteko aukera ere izan zuten eta aurten, beste herriak baina gutxiago ez izateko errejional mailako taldea sortzea erabaki dute. Bai, herriko nesketaz hitzegiten ari gara. Izan ere, aurtengo honetan Usurbil F. Taldeak errejional mailan ari-tuko den emakumezkoen taldea sortu du.

Orain arte futbol zelaian jokatu nahi zuten neskak Lasarteko Ostadar taldera edo Añorgara joan ohi ziren, baina hemendik aurrera herrian jokatzeak aukera ezin hobea izango dute.


Ez da erraza izan taldea aurrera ateratzea. Santixabel jaietan amaitu zen txapelketaren ondoren sustraitu zen futbol taldea ateratzeko asmoa. **Haritz Zubiaur** entre-

natzaillearen esanetan, "Usurbilen nesken taldea sortzeko aukera bazegoela ikusi genuen. Hondartzan jokatzen zutenetatik batzuk mailaz igotzen ziren eta ez zuten herrian futboleant jarraitzeko aukerarik. Honela, herriko nesken artean futboleant jokatzeak nahia bazegoela ikusirik aurrera jo genuen". Hala ere haseran jokatzeak nahia agertu zutenetatik asko ez dira taldean izango. Izan ere deialdia egin ondoren 20 neska besterik ez baitziren agertu, guztiak 14-18 urte bitartekoak.


Honek haserako amok hankaz gora bota ditu. Bi talde egiteko asmoa zegoen arren, gazteenak hondartzan eta zaharrenak errejional mailan, azkenean errejional mailan jokatuko dute bakarrik Honela bada irailaren azken asteburuan emango diote hasera denboraldiari Elgoibarren.

**PORTULARUME**

ITURGINDEGIA  
BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia, 2  
Tlf. denda: 36 46 37 etxea: 36 52 99



ZUMET A  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,  
bazkariaketaafariak  
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"  
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!



51 r ETXE, en  
2 17 USU IL

Tfn. 3 2 52  
F x 37 2 3



## ANA LOPEZ: "USURBIL EUSKALTEGI HANDI BAT DA"



Irailarekin batera, Etumeta Euskaltegiak berriro bere matrikulazio kanpaina martxan jarri du. Aste honetan hasi eta irailaren 27a bitartean bertan izena emateko aukera izango duzu. Duela bi ikasturte kanpaina desberdinak egiten hasi ziren, eta badi-rudi aurten ere hori dela beraien asmoa.

Alde batetik, AEK egiten ari den kanpaina nazionala daukagu, "Euskal Herria Euskaltegi bihurtu dugul" lelopean. Eta bestetik, Etumetak Usurbilen egiten ari dena. Kanpainaren mamia euskaltegiak eskeintzen dituen zerbitzu guztiak (euskalduntzea, alfabetatzea, transmisio kanpaina, EGA) era indibiduallean azaltzea da. Era honetan, jendeak hobeto jakingo du eskeintza bakoitza zer den. **Ana Lopez** Etumetako irakaslearen esanetan, "jendeak oraindik ez daki euskalduntzea euskara ikastea dela. Alfabetatzeak berriz euskaldun zaharrei irakurtzen eta idazten erakustea esan nahi du. Gure kanpainaren helburua horrelako dudak ezabatu eta jendea matrikulatzera animatzea da".

Matrikulazioan diruak zeresan handia duela ezin da ukatu, baina Anaren ustetan usurbildarrok abantail ugari ditugu: "Euskalduntze matrikulak 33.000 pta balio ditu. Beharbada lehen begiratuan ikusita gehiegixko dela iruditzen zaigu, baina kontutan izan behar dugu bederatzi hilabetetako ikastaroa dela (urritik ekaina arte) eta egunero bi ordu ematen ditugula. Gainera, Udaletxeak laguntza asko ematen ditu. Adibidez, bigarren ikasturtea amaitzean matrikularen erdia bueltatzen

dizute eta hirugarren ikasturtean berriz matrikularen %75 a. Bestalde, transmisio matrikula doan izaten da. Alfabetatzeko matrikula berriz, 18.000 pta koa da". AEK-k eta Udaletxeak 10 urtetako hitzarmena sinatu zuten duela bi ikasturte. Era honetan, Etumetak Udaletxearekin bere aurrekontuak aurkeztu dizkio eta horren arabera subentzioa jasotzen du. "Hala ere, ikasleei ematen zaien laguntza subentzio horretatik aparte egoten da", zehazten du Etumetako irakasleak.

Etumeta Euskaltegiaren helburua, AEK-ko euskaltegi guztiena bezala, euskal hiztunak sortzea da. Horregatik, aurtengo ikasturtean izango duten erronka handiena euskara irakasteaz gain, ikasleak euskaltegitik kanpo ere inguru euskaldunetan sartzea da. Anak dioenez, "hau lortzea zaila da. Batzuk lanpostuan euskara behar dutelako soilik etortzen dira hona, eta hauek euskal ingurune batean sartzea nahiko zaila da. Beste batzuk ordea Euskal Herrian euskaraz hitz egin behar dela pentsatzen dute. Hauen euskalduntzea errazagoa

bilakatzen da. Pena ematen diu aukerak edukita pertsona hauek ez erabiltzea, izan ere, Usurbil euskaltegi handi bat bezalakoa da, eta askok ez diote honi etekinik ateratzen. Plazara jeisten denak bizitza euskaraz egin dezake; auzo konkretu batzuetan geratzen direnak berriz euskara galdu egiten dute ingurune guztia erdalduna dutelako".

Beraz, euskara bizi eta ikasteko aukera ederra da Etumetak eta Usurbilek eskeintzen dizutena. Ez utzi ihes egiten, izena emateko epea irailaren 27an amaitzen da eta! Interesatua dagoen edozein Etumetako bulegora hurbil dadila.



KIROLAK  
JOSTAILUAK

Lourdes

Gaztañazpi, 1  
Tel: 37 03 90

Usurbil



TABERNA

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17



Lb T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34  
Usurbil

☎ 36 57 42

## IRAILAK 13 ostirala

\*Usurbilgo gazte asanbladak antolatzen duen Frontenis txapelketaren IX. ihardunaldia.

16.00etan Josu-Xabier  
Patxi-Benat

17.00etan Tirtir-Pelex  
Ainara-Enrike

18.00etan Joseba-Eneko  
Joseba-Gorka

\*Gipuzkoako klub en arteko liga, Usurbilgo frontoian:  
Andatzpe-Peña Pagola  
aurka  
Segurako

## IRAILAK 14 larunbata

\*Arrate Zaharren Egoitzak antolatuta, Bizkaia aldera irteera egingo dute eguna pasatzeko asmotan. 8.30etan.

\*Bigarren Erregionaleko Usurbil futbol taldeak Lasarteko Ostadar taldearen aurka jokatu du Harane futbol zelaian.

\*Texas Lasarte-Usurbil F. T.

Bigarren Jubeniletako futbol partidua Mitxelingo zelain.

\*Ordiziako lehenengo eskusoi-nu lehiaketaren finalean Xabier Tapia eskusoinularia arituko da. Laguntzaile izango ditu Iker Muguruza usurbildarra bateriarekin eta Garbine kitarra eta ahotsarekin. ETBk gaueko 22.30etan eskainiko du hauen saioa.

## IRAILAK 15 igandea

\*Zubietan Euskal Festa ospatuko da.  
Goizean txistulariekin diana, Ondoren hamaiketakoa.  
Goizean zehar herriko gaudu txapelketa eta langintza erakusketa.  
14.00etan bazkaria herriko plazan.  
Bazkalostean herri kirolak: aizkolariak, trontzalariak eta dema.  
Amaitzeko erromeria trikitilari-ekin.

## IRAILAK 16 astelehena

\*Euskal Herria Askatu!-ren kontzentrazioa errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## IRAILAK 19 osteguna

\*Irailaren 21ean egingo den Usurbilgo Sagardogileen arteko Sagardo Lehiaketa afarirako txartelak jasotzeko azken eguna. Aitzaga Tabernan.  
Afariaren prezioa: 2.500 pta.

## IRAILAK 20 ostirala

\*Amezketako frontoian klub en arteko ligako partidua:  
Zazpi Iturri (Amezketak)  
aurka  
Andatzpe-Peña Pagola

## IRAILAK 21 larunbata

\*Andatza K.K.E-ak antolatuta, Pirineoetara irteera egingo dute asteburuan (Petretxema-Bisaurin).

\*Usurbilgo Sagardogileen arteko Sagardo Lehiaketa eta afaria arratsaldeko 20.30etan. Sagardo botatzen arituko dira usurbilgo bost baserri-tako kideak:

- Egioleta Berri
- Olanoea
- Aialdena
- Berreartza
- Arratzain

\*Bigarren Jubeniletako parti-



argazkilaria: L. Izeta



Igandetan ganba-ziri mundialak!

SENIDEREN BAT  
USURBILDIK KANPO BADU-  
ZU, **Noaua!**-KO  
HARPIDETZA OPARITU  
IEZAIOSU

## enda

dua jokatu da:  
Usurbil F. T.-Danena.

\*Kadete mailako futbol parti-  
dua jokatu da:  
Usurbil F. T.-Mundaiz.

## IRAILAK 22 igandea

\*Bigarren Erregionaleko futbol  
partidua:

Boskozaleak-Usurbil F. T.

## IRAILAK 23 astelehena

\*Euskal Herria Askatu!-ren kon-  
zentrazioa errotondan arra-  
tsaldeko 20.00etan.

## IRAILAK 26 osteguna

\*Andatza K.K.Eak antolatuta-  
ko Alaska-ri buruzko diapositi-  
ba emanaldia. Ramon Agirre  
aritu da hizlari gisa.  
Udarregi Zaharrean, arratsal-  
deko 20.00etan.

## IRAILAK 27 ostirala

\*SENIDEAK-en manifestazioa  
arratsaldeko 20.00etan.

## IRAILAK 28 larunbata

\*Arrate Zaharren Egoitzako 16  
lagun Beasainen ospatuko  
den 6. Ibilaldi Neurtura joan-  
go dira parte hartzera.

## IRAILAK 29 igandea

\*Irailaren azken igandean

Andatza K.K.E-k Usurbil-Ernio  
irteera antolatu du urtero  
bezala.

## OHARRAK

\*Lanbide Hastapeneko  
Tailerretan izen emateko  
azken eguna irailak 13 izango  
da. Interesatuak Udaletxera  
hurbildu daitezela. Ordutegia:  
9.00- 13.00.


\*Andatza K.K.E-k irailaren 21-  
22rako antolatu duen  
Pirineoetako Petretxema-  
Bisaurin irtenaldira joan nahi  
duenarentzat izen emateko  
azken eguna irailak 15 izango  
da. Izen ematea Txiriboga  
Tabernan. Ondoren, bilera,  
irailak 19an Andatza  
K.K.E.aren lokalean, arratsal-  
deko 20.00etan.

\*Aitzaga Elkartek antolatuta  
pelota biguinarekin eskuz  
binaka lau t'erdian jokatu  
nahi dutenentzat izena ema-  
teko azken eguna. Baldintza  
bakarra pelotan federatua ez  
izatea. Izen ematea Aitzaga  
Tabernan. Bikote bakoitzak  
2.000 pzta. Bilerak irailak 20an  
burutuko da Aitzaga  
Elkartean, arratsaldeko  
19.30etan.

\*Etumeta euskaltegian izen  
emateko azken eguna irailak  
27a izango da.

Maila guztietako euskara ikas-  
taroak. EGA eta Alfabetatze  
ikastaroak.

37 00 00 telefonora deitu infor-  
mazio gehiagorako.



\*Irailaren 1etik 28ra kobratze-  
ko gai egon dira 1996ko eki-  
taldiaren bigarren hirula-  
betekoari dagozkion errezi-  
buak, alegia, estolderia, ura  
eta zaborren errezi buak. Gaur  
ere ordaindu ahal izango  
dira.

\*DYAren sorosle ikastaroa.  
Ikusentzunezko metodoak,  
ikaspide aurreratuak, ekintza  
saioak... Talde mugatuak eta  
la-gunarteko giro jatorra.  
DYAko sorospen agiria lortuko  
da.

Hasiera data: 30-09-96  
Amaiera data: 31-10-96  
Ordutegia: 19.00-21.00  
Tlf. 370000- 464622

\*Zumarte Musika Eskolan  
96/97 ikastaroko matrikulazio  
epea irailak 16-20 (biak  
barne) izango da. Ordutegia:  
17.00-20.00.



San Esteban kalea, 1  
Usurbil

Tlf 36 00 80



**kafe berezia**

ETXE-ALDIA, 1  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

Buru-azalar enzainketa  
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

# L

ehiaketa

argazkia: J.Lizeta



Joan den asteko lehiaketan eginiko galdera baino errazagoarekin gatoz oraingoan. Argazkian ageri direnen izenak eskatzea zail xamarra izan daitekeelakoan hona hemen gure galdera:

## ZEIN LEKUTAN ATERATA DAGO ARGAZKI HAU?

Erantzuna baldin badakizu idatz hiezaguzu: Noaua! aldizkaria, Kale Nagusia 27 20170 Usurbil, postaz edo zuzenean gure buzoira boteaz.

Asmatzaileen artean PATRI JATETXEAN bi lagunentzako afaria zozketatuko da.



Ez zihoan txantxetan. Oraingo honetan serioski hartu dugu lehiaketa eta Iñigo Garcia de Eulate topografia ikaslea elizako dorrea neurtzen jarri genuen.

Behingoz, usurbildarron artean hainbat bider apustugai izan dena argitu da.


Usurbilgo Salbatore Donea elizaren dorreak **47,02** metroko altuera duela jakin dugu.

Jaso dugun erantzun mordoaren artean gehien gerturatu dena **TXELO VIDAL** izan da. Eguzkitzaldean bizi den neska gazte honek dorreak 45,60 metro neurtzen dituela dio. On egin dagizula Sekañako afariak!

# K


omikia

Karlos Zabala





Argazkia: Uxoa Zumeta



Mundua borobila dela norbaitek esan zuen. Guk ere  
**Noaua!** aldizkaria borobil-borobila izatea nahi  
 dugu. Horregatik bueltaka-bueltaka bazterrik  
 pentsaezinenetara ere iritsi da, Vietnamera kasu.  
 Zuk ere bultzada eman diezaiokezu.

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE

HAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

H A M A B O S T E K A R I A  
 z  
 u  
 n

# USURBILDARRENTZAKO IKASKETA ERTAINAK

## *LASARTE-ORIAKO BATXILER INSTITUTUA*

BBB / BUP  
UBI / COU  
3 ereduetan:  
(A, B eta D)



## ***USURBILGO LANBIDE ESKOLA:***

- ❖ REM I
- ❖ REM II (Administrazio eta Gestioa, Tekniko Industrialak)
- ❖ Modulo III (Administrazio eta Gestioa)
- ❖ LH 2 (Administratiboa, Automatismoak, Mekanika)



**USURBILGO**



**LANBIDE  
ESKOLA**

Tel. 36 46 00  
36 17 94  
Faxa 36 66 89